

Jesús Valero TECNALIAko zuzendari nagusia EARTO Ikerketa eta Teknologiarako Europako elkarte nagusiko presidente hautatu dute

Valerok bere gain hartu du ikerketarako Europako sarerik handienaren presidente-kargua. Sareak 350 erakunde eta 228.000 ikertzaile baino gehiago biltzen ditu, 32 herrialdetan. Valeroren helburua da “gure ingurunearen benetako arazoak industriaren bidez konpontzeko teknologiak ikertzen eta sortzen dituzten erakundeak elkartzen laguntzea, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko”.

2025eko apirilaren 2a. Jesús Valero TECNALIAko zuzendari nagusia EARTO Ikerketa eta Teknologia Erakundeen Europako Elkarteko presidente aukeratu dute gaur, EARTOren Batzar Nagusiko kideen aho bateko babesa jaso ondoren. 350 erakunde eta 228.000 ikertzaile baino gehiago ditu 32 herrialdetan, 23.000 milioi euroko fakturazioa urtean eta 100.000 bezero urtean. Teknologiako Europako sare nagusia da, 25 urte baino gehiagoko ibilbide sendoa duena, eta zentro teknologikoak funtsezko eragile gisa kokatu ditu ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloan; horrek Europar Batasunaren lehiakortasuna bultzatzen du. Egun hauetan EARTOren Urteroko Konferentzia egiten ari dira Valentzian, eta hor egin da presidentearen izendapena, baita presidenteorde berriarena ere: Malin Frenning, Suediako zentro teknologiko nagusi den RISEko CEOa.

Valero TECNALIAko zuzendari nagusia da 2021az geroztik, eta EARTOko presidenteordea izan da iaiztik. Etapa berri honetan, Europako zentro teknologikoen interesen ordezkari izango da. Egiteko horren bidez, EBko politiken bilakaeraren jarraipena egingo du, elkarteko kideen ikuspuntuak ordezkatzeko ditu EBko erabakiak hartzeko ardura dutenen aurrean, eta zentro teknologikoen beharretara egokitutako EBko programen alde jardungo da.

Valeroren arabera, “EARTO motor bat da Europan, zentro teknologikoek ikerketaren arloan egiten duten lana enpresetara eta gizartera eramateko. Pribilegiatuak gara, batetik, gure inguruneke benetako arazoentzako soluzio teknologikoak sortzeko hain sare zabala eta egituratua dugulako; eta, bestetik, ikertzen eta sortzen duten erakundeak —zeinei esker pertsonen bizi kalitatea hobetzen baita— industriarekin elkartzen dituen EARTOren moduko bitartekari handi hori dugulako. Hori da, halaber, TECNALIAN dugun misioa, eta guretzat ohore bat da horretan lagundu ahal izatea Europa osoan”.

Biologia Zientzietan doktorea eta Marketineko eta Merkataritza Zuzendaritzako masterduna, Jesús Valero liderra da berrikuntzan eta garapen teknologikoan, eta 25 urte baino gehiagoko esperientzia du ikerketa aplikatuan eta zentro teknologikoen kudeaketan. 2019an, zentroko Osasuneko zuzendari gisa sei urte egin ondoren, Teknologiako zuzendariordetza nagusia hartu zuen bere gain, eta, 2021ean, zuzendaritza orokorra. TECNALIAko zuzendari nagusi gisa, honako hauek bultzatu ditu: I+Gko bikaintasuna, industria-sarerako soluzioen garapena, finantzaketa lehiakorra erakartzea eta eragin handiko spin-offak sortzea, baita industriaren lehiakortasuna indartzeko ekimen estrategikoak ere. Bere ibilbideari esker, erreferentzia bat da zientziaren eta industriaren arteko lankidetzan; ibilbide hori, hain zuzen, arlo hauetan egin du: zuzendaritza estrategikoan, inbertsio publiko-pribatuan, Europako partzuergo estrategikoen lidergoan eta funtsezko

sektoreetako teknologiaren garapenean eta transferentzian. Zeregin aktiboa du EARTOn, Zentro Teknologikoen Espainiako Federazioan (Fedit), Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzian eta Basque Research and Technology Alliance BRTA erakundeetan. Hori dela eta, haren ikuspegiaren funtsa da Europako zentro teknologikoen lankidetzeta eta lehiakortasuna indartzea eta berrikuntza garapen eta lehiakortasun globalaren motor gisa sustatzea.

1999an sortu zen EARTO, Ikerketa eta Teknologia Erakundeen Europako Elkarte. 32 herrialdetako 350 bazkide baino gehiago ditu, eta oso gaituta dauden 228.000 ikertzaile eta ingeniariaren ordezkari da, zeinek berrikuntzarako azpiegitura-sorta zabala kudeatzen baitute. Hauek dira EARTOren helburuak: ikerketa estrategikoa sustatzea, etorkizunean aplikatzeko jakintza eta teknologia berriak gara daitezen; jakintzaren transferentzia bultzatzea, ahalik eta gehiena heda dadin; ikerkuntza-erakundeen arteko lankidetzari laguntzea, teknologia espezifikoak eta aplikazioak gara ditzaten.

EARTOko Zuzendaritza Kontseiluko kidea da TECNALIA, baita Batzorde Betearazlekoa ere. Garrantzi handiko erakundeek osatzen dute batzorde hori, hala nola FRAUNHOFER (Alemania), RISE (Danimarka), CEA (Frantzia) TNO (Holanda) eta AIT (Finlandia).

TECNALIari buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobea eraikitzeko konpromisoa hartu duena. Horregatik, TECNALIaren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. Hauek ditu jarduera-eremu nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

European Research Survey ERSk ospeari eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2022an egina da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen ospeari dagokionez.

www.tecnalia.com/eu

Informazio gehigorako:

Itziar Blanco (681 273 464)